



Euskal Curriculum lehen lerrora

Erkuden Barandiaran Gofi irakasleak puntu interesgarria ipini dio gogoetari, abuztuaren 27an GARA egunkarian argitaratu zuen «Eusko Jaurlaritzarentzat nafarrak "estatu-kide" eta Iparraldekoak "atzerri-tar"» iritzi artikuluan. Martxelo Otamendik jarri omen zuen arrastoan, Eustatek (Eusko Jaurlaritzako Estatistika Erakundeak) argitaratutako EAEko hoteletan izandako bisitari kopuruaren harira. Irizpide erabat espainiarraren arabera sailkatu ditu

**Normalizatu gabeko herria da gu-
rea, zapaldua eta hizkuntza gutxi-
tua duena.** Egia da azken hamarkade-
tan urrats handiak egin direla, batez
ere, euskararen irakaskuntzaren alo-
rrean. Testuliburu eta bitarteko ugari
dugu gaur egun euskaraz eta hori, za-
lantzarik gabe, poztekoa da. Tenorea

Ez genuke zain egon behar Euskal Curriculumaren gaia noiz azalduko. Guk geuk ekarri behar dugu. Curriculumak inposatzen badizkigute ere, eta legea alde duten arren, euskal kolorea eta izaera eman diezaiekegulako Euskal Curriculumak eskaintzen dizkigun betaurrekoak janzten baditugu inposizio horiek guztiak irakurtzeko. Badakizue, otsoa beti izango da gaiztoa, Txanogorritxo bada istorioa kontatzen duena. Ipuina euskaraz kontatzen badu ere. •

